



Santakruzak apirilaren 29an hasi eta maiatzaren 3an amaituko dira

Jai egitarau osoa asteburu bakarrean bildu dute. Koadrilen eguna maiatzaren 2an izango da, astelehenarekin.

Iaz Koadrilen eguna jaien aurreko asteburuan ospatu bazuten ere, aurtengo egitarau osoa jarraian egiteko egokitu dute. Maiatzaren 2an izango da, astelehenarekin, Santa Krutz egun handiaren bezperan.

Jai batzordeak egitarauaren azken xehetasunak lotzen dihardu egun hauetan. Apirilaren 29an hasiko dira jaiak.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]



Iaz apirilaren 25ean ospatu zen koadrilen eguna, jaien aurreko asteburuan. Aurtun jai egitarau osoa asteburu bakarera mugatu dute.

Maurizia ikuskizuna, larunbat honetan



Aukeran dantza konpainiak ikuskizun berria taularatu du larunbat honetan iluntzeko 20:00etan hasita, Saroben. Sarrerak salgai daude.

[URNIETA, 4. ORRIALDEA]

Jokin Izagirre Txirritaren antzezlanean



Datorren irailean Donostian eta Urnietan eskainiko duten antzezlanean, Jokin Izagirre antzele modura arituko da Txirritaren defentsorearen paperean. 1982an bezala.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]

Mikel Goenaga, Andoaingo herrikide askorengan arrastoa utzi zuen apaiza

Mikel Goenaga Telletxea (Antigua, 1958) martxoaren 16an hil zen, gaixotasun larri baten ondorioz. Datorren apirilaren 24an omenaldia egingo diote Sorabillan.

Astigarragako hilerrian lur eman zioten martxoaren 18an, eta hileta elizkizuna arratsalde horretan egin zuten bertako



Mikel Goenaga apaiza.

Andre Mariaren Zeruratzearen parrokian. Apaiz gisa ezagutu zuten Andoain, Oiartzun eta Astigarragako herritarrekin eta gainerako adiskideekin jendez lepo bete zen eliza.

Elizaren kanpoaldean, Aiurrik hainbat andoaindarren iritzia jaso ahal izan zuen. Denek ere, Goenagaren kristau baloreak nabarmendu zituzten.

Agin Laburu Astigarragako bertsolariak bertso ederra eskaini zion hileta elizkizunean, Mikel Goenagaren nortasuna

eta ibilbidea ondotoxo laburbiltzen zuena:

"Inork laguntza behar bazuen etzinan ibiltzen dudana.

Elizarekin kritiko eta politikoekin mugan.

Zu pertonekin kezkatzen zinan norbere baitako gudan.

Ta garaipena bidean zegoen ez horrenbeste helmugan (bis).

Eskerrak eman nahi nizkizuke nahiz ta orain berandu dan.

Elizan sartzen ez ginen askok sinesten genuen zugan".

[ANDOAIN, 6-7. ORRIALDEAK]

EGIN EROSKETAK ANDOAINEN

ANDOAIN TXARTELA



egin ez gero 10€ko txakea jasoko duzu

10€-ko Txakea



D. _____
I.F.Z.: _____
IRAUNGITZE-DATA: 2016 / 05 / 31
MERCATAGUNEAREN IZENA: _____
DATA ETA DENDAREN ZIGILUA _____
DATA CAJA RURALEKO ZIGILUA _____

OINARRIAK:

- TXEKE BAT TITULAR ETA TXARTEL BERRI BAKOITZEKO
- ANDOAIN TXARTELA DUTEN HERRITARREK EZIN DUTE PROMOZIO HONETAN PARTE HARTU
- DENEK 2016ko APirilAREN 30BAINO LEHEN BETETAKO TXEKEAK BAKARRIK BALIOKO DUTE
- TRUKE SISTEMA ANDOAIN TXARTELAN EGINDAKO LEHENENGO EROSKETAN AGERTZEN DEN DENDAN EGIN BEHAR DA
- OINARRI GUZTIAK ELKARTEAN



Denda Berri elkarteko jarduerak apirilean

Ostiral honetan, apirilak 8, eskualde mailako mahai joko txapelketari ekingo diote goizeko 10:30ean hasita. Bertan Urnietako irabazleek parte hartuko dute.

Apirilaren 23an, bestalde, Bilbora egun pasa egingo dute. 08:00etan egoitzaetik abiatuko dira Arte Ederretako museora. Segidan, Bilbo

itsasontziz ezagutzeko aukera izango dute.

IKASTAROA

Ukipen pantailadun telefonoak erabiltzeko ikastaroa Urnietan, Denda Berri elkartean. Arratsaldeko 16:30etik 19:30era.

Datak:

Apirilak 11-12 / 18-19.

Liburuaren eguna Urnietan, Iñistorraren eskutik



Liburuak gogoan hartuko dira Urnietan, datorren apirilaren 23an.

Aurten ere **Liburuaren nazioarteko eguna** ospatuko da Urnietan, datorren apirilaren 23an, hain zuzen ere. Larunbat horretan, Iñistorra elkartearen eskutik mahai bat ipiniko da San Juan plazan, bertan hainbat euskal liburu erosteko aukera izango delarik.

Urtero moduan, aurten ere, **Iñistorra** elkarteak **Pirritx, Porrotx eta Marimotots** pailazoaren emanaldia antolatuko du, Egape ikastolako jolastoki estalian maiatzaren 20an izango da.

“**Amalur**” ikuskizun berriena eskaintzera etorriko dira eta liburuaren postuan bertan emanaldi horretarako sarrearak erosteko aukera izango da.

Eta liburuaren eguna bobiltzeko, arratsaldeko 19:00etan hasita Saroben ipuin erotikoaren emanaldia izango da. Bertan, **Mirian Uhalte** eta **Maialen Diazek** musikaz lagundutako lau ipuin erotiko kontatuko dituzte “*El placer es nuestro. Gurea da plazerra*” izena duen ikuskizunean.

Urnietako Udalak herritarrekin batera hartu nahi du erabakia

Inbertsioak zehazteko hilabete erabakiorra

Azken hilabeteotan inbertsio planei ekiteko Udalak sustatu duen parte hartze prozesuaren erabakiorrean sartuko da. Apirilaren 18ko astean Udalak hiru bilera deituko ditu, eta bertan 400.000 eurotik gorako hamaika proposamen aurkeztuko dituzte. Aurkezpen horietan iragarriko dutenez, urnietarrek proposamen horien guztien artean hiru lehenesteko aukera izango dute. Urnietarrek, beraz, azken urteotan pilatu diren 4.000.000 euroko *remanente* edo gerakina zertan inbertitu erabakitzeke ahalmena izango dute. Erabakia hartzeko garaia apirilaren 25ean irekiko da, maiatzaren 11ra bitarte.

Mikel Pagola alkateak astelehen arratsaldean Euskadi Irratiko *Mezularia* programan adierazi zuenez, “herritarrek etorkizuneko Urnieta nolakoa izan nahi duten erabakitzeke



aukera izango dute, inbertsio estrategiko horiek etorkizuna baldintzateko aukera izango baitute”.

2016a inbertsio plana erabakitzeke urtea izango da. Otsailan Udalak egin zituen hiru bileretan zazpi inbertsio proposamen azaldu zituen. Hae-

kek: Eteneta elkartearen atzeko parte herriko elizarekin lotzeko igogailua, Idiazabal kalearen berrantolamendua, Errekalden etxebizitza sozialak, hainbat parke estaltzea, San Juan plazan oinezkoen lehentasuna ematea, aparkaleku kopurua handitzea edota kiroldegia eraberritzea.

Horiez gain, Udalak proposamen berriak jasotzeko aukera zabaldu zuen bilera horietan. Bada, alkateak irratian adierazi zuenez, 220 gutun jasotuzte 440 idatzizko proposamenekin batera.

Hori guztia kontuan hartuta, apirilaren zehar urnietarrek hamaika egitasmoren artean erabakitzeke aukera izango dute.

Hamar egun barru, xehetasun gehiago emateko, hiru bilera deituko dituzte. Eta apirilaren amaieran eta maiatzaren hasieran hasiko da behin betiko aukeraketa fasea.

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEA

Apirilaren 4an eskualde mailako **Kooperatzen** eta **Eraldatzen** programen aurkezpena egin zuten Hernanin. Besteak beste, enpresa-ideia eredu sozial eta kooperatiboan sortzen laguntzeko formakuntza eta aholkularitza eskaintzeko sortu da. 28 pertsona bertaratu ziren, hainbat egitasmo berritzaile aurrera eramateko. Besteak beste, elikadurari, aisialdiari eta kultur jarduerari buruzkoak. Informazio gehiago kooperatzen.net webgunean.



Liburuaren eguna Urnietan

apirilak 23, larunbata

11:00-13:00 Liburuak salgai San Juan plazan.

Datorren maiatzaren 20ko Pirritx, Porrotx eta Marimototsen “Amalur” emanaldirako sarrerak bertan salgai ipiniko dira.

19:00 “Gurea da plazerra” ipuin erotikoak Saroben. 3 euro.

Antolatzailea: Iñistorra | Babeslea: Urnietako Udala | Laguntzailea: Aiurri



ORAIN 34 URTE BEZALA TXIRRITAREN DEFENTSOREA IZANGO DA BERRIRO

Jokin Izagirre, berriro Txirritaren defentsore



Jokin Izagirre Goia, (Urnieta, 1949) gaztaroan antzerki munduan ibilbide luzea egindakoa da. Maria Arizmendik *Egi billa* taldean, lehenik; Lourdes Iriondo eta Xabier Le-

tek sortutako *Buruntza* taldean, ondoren. Duela 34 urte, "Gabon Txirrita" obrarekin utzi zion antzezteari, orain obra berarekin eta orduko paper berdinarekin itzuliko da.

1968. urtean hasi eta hamabi urtez Urnietako *Egi billa* antzerki taldean aritu zinen. Herriko zaharrenek oraindik memorian itsatsita dituzte "Kalifornia" eta garai haietan eskaini zenituzten beste hainbat obra. Zuk nola gogoratzen duzu garai hura?

Jokin Izagirre: Gazte batzuk bilera politikoak egiten hasiak ginen ordurako. Eta euskal antzerkigintza, diktadurari aurre egiteko tresna baliagarria zela ikusten zuen Maria Arizmendik deituta, *Egi billa* taldean hasi ginen. Labaien eta Begiristain bezalako idazleen obrak taularatzen genituen. Gaur egunerako ez lirakeke ziurrenik oso egokiak izango. Orduan, kontuan izan behar da Francoren diktaduraren azken urteetan bizi ginela, eta testuarekin ere muga asko genituela, adibidez, "askatasuna" hitza ere ezin zen erabili, dena moldatu eta egokitu beharra izaten zen garaiko gobernadore zibilak emandako aginduetara.

Eta *Egi billa* desegindakoan *Buruntza* taldera pasa zinen...

J.I.: Bai, taldeko bi pasa ginen, Lourdes eta Xabierren taldera. *Buruntza* talde giro bikaina zegoen orduan, ni baino hamar bat urte gazteagoek osatutako lagun koadrila bat zela esan liteke.

Nolakoa zen Xabier Lete zuzendari moduan?

J.I.: Oso exigentea. Esate baterako, "Gabon Txirrita" obran, buruan zeuzkan paper guztiak eta bere modura egin behar izaten ziren, den-dena berak esaten zuen moduan. Taldekideen sujerentziak ez zituen onartzen, oso garbi baitzeukan nola enfokatu, alegia, pulamentu gabeko juizio bat dela obrak erakusten duena, eta horrek umoreari bidea irekitzen diola.

Luzea izan al zen obraren pres-takuntza fasea?

J.I.: Ez zen denbora askorik erabili obra montatzeko. Hila-



Jokin Izagirre Goia urnietarra.

Xabier Lete oso exigentea zen. Esate baterako, "Gabon Txirrita" obran, buruan zeuzkan paper guztiak eta bere modura egin behar izaten ziren, den-dena berak esaten zuen moduan"

bete gutxi batzuetako kontua izan zen. Taldekide batzuk soldadutzatik etorri berriak baitziren, nahiz eta besteok aurretik gure papera ikasten arituak ginen. Azken egunetako entseuetan urduritasuna nabaritzen zen, hari mutur asko bai-

tziren lotu beharrekoak, hala nola dekoratua, eszenatokia, fokoak nork jarri eta abar luzea.

Eta estreinaldi eguna iritsi zen...

J.I.: Bai, hiru egunez jarraian eskaini genuen orduko Elizondo aretoan. Hiru saioretarako sarrerak agortu egin ziren eta ikusleek asko disfrutatuta zuten. Ikusi zutenek, oroitzapen polita gordeko dute.

Ondoren, Euskal Herrian zehar ibili zineten batetik bestera. Nola gogoratzen dituzu emanaldi haiek?

J.I.: Joaten ginen toki denetan

"Urte asko pasa dira eta ez da berdina 33 urtekin edo 67 urterekin agertokira igozea, baina gustura sentitzen naiz Txirritaren defentsorearen paperean"

aretoak bete egiten ziren. Baina, orduko egoeraz jabetzeko, kontuan izan behar da, euskaraz antzerkia egiten, hiru talde bakarrik ari ginela, Oiartzungo *Intxixu*, Debako *Goaz* eta gu. Gogoratzen dut, adibidez, Donostiako Antzoki Zaharrea jendeak zer nolako barre-algarak egin zituen.

Bentako Tomaxen kamioian eramaten genituen gauzak. Itzulitakoan kamioia deskargatzen aritzen ginen goizaldeko ordu txikietan, batzuk alde eginda, beste batzuk malaletxean... 22-23 urteko mutil gazteak parrandarako gogoz izaten baitziren.

Herri batetik bestera asko aldatzen al zen ikusleen erreakzioa?

J.I.: Bai, Eibarren, adibidez, barre gutxiago egiten zuten, beraientzat ulergaitza egiten eta esaldi batzuk ez zituzten ondo jasotzen. Ondorioz, publikoa nahiko isilik egoten zen, baina, esate baterako, Erreterian eta Oiartzunen jendeak izugarritzko algarak egiten zituen.

Zure azkeneko obra "Gabon Txirrita" izan zen, eta 34 urte geroago agertokietara obra eta paper berdinarekin itzuliko zara. Nola sentitzen zara?

J.I.: Bai, nire azkeneko antzezlan hau ere bera izan zen. Deitu zidatenean ezusteko handia hartu nuen, baina gero "zeratik ez?" pentsatu nuen. Urte asko pasa dira eta ez da berdina 33 urtekin edo 67 urterekin agertokira igotzea, baina gustura sentitzen naiz defentsorearen paperean.

Nolakoa da Txirritaren defentsorea?

J.I.: Ez da oso serioa ere, baina Txirrita defendatzeko argumentuak baditu, nahiz eta sarritan pulamentu handirik gabekoak diren. Eta noski, Txirritaren alde dena emateko prest.

Nola ikusten duzu taldea?

J.I.: Oso giro polita ari da sortzen. Jendea gogoz ikusten dut lanean. Ikusten da *Egi billa* taldearen sorreratik 50 urtera ere, Urnietak herri antzerkizale izaten jarraitzen duela.

Antzezlari honek gaurkotatzen al dauka?

J.I.: Kontatzen den istorioagatik baietz esango nuke, horrelako pertsonaiak Euskal Herrian beti egon dira: Izan liteke Txirrita, Lazkao Txiki edo beste hainbat.

Eta horien inguruan sortzen den edozein istorio, berez, erakargarria dela iruditzen zait. Pertsonaia xelebreak dira eta ez dute gaurkotatzen inoiz galtzen.

Beraz, gauza tristeak tarte batez ahaztu eta barre batzuk egin nahi dituenarentzat oso gomendagarria da irailan eskainiko dugun antzezlan.

Zure azken lana izango al da?

J.I.: Ez dakit. Lan honen ondoren beste aukerarik sortzen bada parte hartzeko prest izango naiz.

XABIER LETEK APIRILAREN BOSTEAN 72 URTE BETEKO ZITUZKEEN

Aste honetan bete dira 72 urte Xabier Lete jaio zela, Oiartzun herrian. Hain zuzen ere, apirilaren 5ean. Bizitzaren zatirik handiena Urnietan egin zuen kantari, idazle eta poeta handia 2010ko abenduaren 5ean zendu zen, hainbat poema eta abesti eder utzi ondoren. Aurten, berak idatzitako "Gabon Txirrita" antzezlan taularatuko dute Urnietako herritarrek, Donostian eta Urnietan. Donostian irailaren 10ean, eta Urnietan Sanmiel jailetan.



Iazko parte hartzea gainditu egin da aisialdi jardueretan



“Askotan ez da erraza izaten denekin asmatzea, baina Aste Santu honetan guztiz lortu dugula uste dugu”, diote Gaztelekuko hezitzaileek.

Urnietako gazteek aisialdi ekintza ugari gozatu dute Aste Santuko oporraldian, eta orokorrean parte hartze handia egon dela azpimarratu dute **Garazi Jauregi** eta **Unai Esnal** hezitzaileek.

Urnietak apustu handia egiten du haur, nerabe eta gazteen aisialdi eskaintza aberasgarria izan dadin. Gaztelekutik adierazi dutenez, haurrek opor garaian ekintza ezberdinak egiteko aukera izatea eskertu egiten dute: “Askotan ez da erraza izaten denekin asmatzea, baina Aste Santu honetan guztiz lortu dugula uste dugu”.

Hezitzaileak oso pozik daude parte hartzearekin. “Luzatu genuen eskaintzaren ezaugarri nagusia ekintzen aniztasuna zen. Interes ezberdinak dituzten nerabeketara iristeko asmoa genuen eta lortu dugula esango genuke”, aitortu dute hezitzaileek.

leek. Aurreko urteetan baino gazte gehiago gerturatu dela gaineratu dute. Esate baterako, eskubalo txapelketan 54 nerabek hartu zuten parte eta bubble futbolera 75 animatu ziren.

Ekintza guztien artean, bubble futbola eta Irisarrira irteera nabarmendu dituzte. “Futbol normalera jolastu genuen, baina burbuila batzuetan sarturik. Gazte ugari eduki zuten hori probatzeko aukera eta gustura egin genuen barre”. Irteeran ere ederki igaro zutela azaldu dute, tirolinan, eskopeten talde jolasean eta abentura ibilbidean 40 neraberekin aritu zirelarik. “Gazte batzuei galdezka ibili ginen eta orokorrean oso ondo pasa zutela adierazi digute; eskaintza anitza izanda, ekimen ezberdinetan ematen dute izena askok. Askok gustu handiz errepikatuko litzuketela esan digute”.



Aurreko urteetan baino gazte gehiago gerturatu dela gaineratu dute.

Pausokari laguntza

Korrikolaris a tope 8.0 taldeko lau kide Pausoka elkartearen zuzen zuzen apirilaren 1ean, 2015eko Herri Biran parte hartu zuten kirolariei esker lortutako 554 eurotako txeki solidarioa emateko.



“Ikusle bakoitzak bere Maurizia aurkitzea lortu nahi dugu”

Maurizia ikuskizunaren aurre estreinaldia

Aukeran Dantza Konpainiak “Maurizia” ikuskizun berria ondu du. Estreinaldiaren aurretik, aurre-emanaldia egingo dute larunbat honetan Saroben. Arratsaldeko 20:00etan izango da.

Zein da ikuskizunean kontatuko duzuen istorioa?

Garazi Egiguren: Maurizia ardatz hartuta, emakumeak izan duen garapena islatu nahi dugu. Emakumearen indarra eta dituen alderdi ezberdinak erakutsiko ditugu; emakumea bera, esparru guztietan: emakume langilea, sentimentala, sentsual, ameslaria... Maurizia sinbolo bezala hartu dugu, beldurrei eta aurreiritziei aurre eginez, plazara ateratzeko kementa izan zuelako.

Ioritz Galarraga: Beste ikuspuntu bat ere gehi diezaiogegu emandari. Emakumeen garapenaz gain, gizartearen eboluzioa ere erakutsiko dugu. Mauriziaren garaiari lotuta, gerra garaia eta elizaren eragina ikusiko dira.

Maurizia Aldeiturriaga, emakumearen ikuspegia azaleratzeko aitzakia al da?

G.E: Bai. Maurizia lehen aldiz plazara atera zen emakumea da. Plazaz plaza ezagun bihurtu zen panderoa jotzen eta izugarriko kementa eta indarra erakutsi zuen.

I.G: Hasiere batean Maurizia agertzen bada ere, ikuskizunean segituan guztiok izango gara Maurizia. Pertsonaia banandu eta bere izaera eta pertsonalitate ezberdinak hartuta, rol ezberdinak interpretatuko ditugu. Momentu bakoitzean, dantzari bakoitzak hartuko du garrantzia eta Mauriziaren alor edo garai jakin bat transmitituko du.

Beraz, ikuskizunean bertan erritmo eta estilo aldaketak egongo dira...

G.E: Ardatz kronologiko batetik abiatuko gara; haurraren xamurtasunetik, panderoaren pasioa ezagutu zuen garaira. Amodioa, gorrotoa... Sentipen ezberdinak transmititzeko joera ematen du.

I.G: Plaza ere agertuko da, oso inguru animatua dena. Denetik erakutsiko dugu.

Panderoak agertuko badira ikuskizunean, instrumentua jotzen ere ikasi beharko zenuten, ezta?



Ioritz Galarraga eta Garazi Egiguren dantzariak.

“Emakumeen garapenaz gain, gizartearen eboluzioa ere erakutsiko dugu”

I.G: Bai. Era nahiko autonomoan, bakoitzak bere aldetik, panderoa jotzen ikasi behar izango dugu.

Zer moduz doaz azken entsegu hauek?

G.E: Beti bezala, nahiko larri. Azken egunak gainera etortzen direnean, beti denbora gehiago nahi izaten dugu.

Urnietako aurre-emanaldiak zein puntutan dagoen ikusteko balioko al dizue?

I.G: Bai, finean, entsegu ireki bat bezalakoa izango da, eta zein akats ditugun ikusteko balioko digu. Jendaurrean egingo dugun lehen aldia izango denez, gure jarrera ere ezberdina izango da. Ez da gauza bera publikoarekin edo gabe dantza egitea. Egun horretan dena ematea lortuko dugu.

G.E: Jendea etorriko da ikustera eta jendearentzat ari gara lanean. Horregatik, jendea egoteak asko laguntzen du. Beraien erantzuna ezinbestekoa da. Gainera, kasu batzuetan, aurre-estreinaldiaren ondoren zenbait aldaketa egin behar izaten dugu, publikoarekin ez duelako zerbaitek funtzionatu edo zerbaite beste modu batera

egitea egokiagoa iruditu zaigulako.

Zer da ikasteko garaian zailena egin zaizuen?

G.E: Ainhoa Aierbe ari da eszena zuzendaritza lanetan eta bere laguntza eskertu beharra dugu. Istorioaren transmisioan laguntzen ari zaigu. Guk gure dantza eta istorioa oso barneratuta ditugu; gure pelikula eraikitzen dugu, baina, agian, jendeak ez du gure pelikula bera ikusiko. Barrutik ezberdin bizi dugu eta pauso bat harago joaten laguntzen digu berak. Askok nabaritu da bere lana; alde handia egin dugu eta helburua lortuko dugula espero dut.

Zein da zuen helburua emanaldiei begira?

G.E: Ikusle bakoitzak bere Maurizia aurkitzea lortu nahi dugu; emakumea edo gizonezkoa izan, bakoitzak gure baitan pertsonalitate edo izaera ezberdinak ditugulako.

I.G: Ikuslearengana iristen bagara, transmititzen badiogu eta sentitzen badu, helburua lortuta geratuko da. Horrez gain, Maurizia ezagutzera emateko aukera ere bada. Panderoa jolea izateaz gain, emakume langilea zen, harremanak zituen, gerra garaia bizitu zuen... Ez zen plazara irteten zen emakume folklorikoa soilik. Neurri batean ikuskizuna emakumeen omenaldi bezala uler daiteke.

SANTAKRUTZAK 2016

Aurtengo Santakruzak, bost egun jarraian

Ostiralean hasi eta asteartera bitarte, ospakizunez beteriko asteberu luzea izango da aurtengoa. Koadrilen eguna, esaterako, astelehenaekin izango da aurten.

Hitzordu asko klasiko bilakatu dira, hala nola, sagardo dastaketa, kros herrikoia edota danborradak. Beste batzuk, Elegante eguna edota pintxo lehiaketa, urtez urte indartuz doaz.

Txupinazoa



Apirilak 29, ostirala

Jaiaren hasieran aldaketarik ez da izango. Txikienek jaiari Zumea plazan emango diote hasiera, eta helduenek iluntze aldera.

Rantxerak



Apirilak 29, ostirala

Los Zopilotes Txirriaos festaz festa rantxerak eta parranda giroko kantuak eskaintzen eskarmentu handiko taldea da. Jaiaren hasiera girotuko dute.

Saltsa



Apirilak 30, larunbata

Kale Nagusiko auzo bazkaria **La Jode-dera** taldeak alaituko du, ohiko dituen Kubako doinuak eskainiz. Eguraldiak lagunduz gero, giro bikaina sortuko da.

Dantzaldia



Apirilak 30, larunbata

Gauean **Ingoaldeu?** taldea zuzenean arituko da, Donostia aldeko Ezustean taldearekin batera. Iluntzean Zozongo perkusio taldea kalez kale ibiliko da.

Sagardoa



Maiatzak 1, igandea

Hitzordu klasiko horietakoa da. Sagardozale askok jaietako igande arratsaldean hitzordua dutela jakin badakite.

Koadrilak



Maiatzak 2, astelehena

Koadrilen eguna astelehenarekin izango da, Santa Krutz egun handiaren bezperan.

DJ saioa



Maiatzak 2, astelehena

DJ Bull aski ezaguna da musika eta jai giroetan. Koadrilen egunean txozna giroa alaitzen arituko da.

Kalejira



Maiatzak 3, asteartea

Elegante eguna jaietako azken hitzorduetakoa izango da. Kalejira umoretsuan parte hartzeko aukera bikaina da.

POSTONTZIA: "ERREKABELTZKO SANEAMENDUAREN ATZERAPEN BERRIA"

Eguzki talde ekologista

"Ziako erreka edo Errekabeltzeko saneamendua berriro atzeratu dela salatu nahi dugu. Atzerapena hamarkada batekoa ere izan daiteke, gainera. Izan ere, Plan Hidrologiko berriak Errekabeltzerako lan gehienak 2022-2027ra arte ez egitea aurreikusten du.

Kontuan izan 2007an, erakundeek 2011 bitarte Gipuzkoako hainbat lan hidrauliko aurrera eramateko hitzarmena sinatu zutela eta lan horietako Ziako erreka zela. Beraz, oraino hau ez da inola ere lehen atzerapena. Orduan, 2007an, aurrekontua 3,8 milioi eurokoa zen, Eusko Jaurlaritzak Ura Agentziaren bidez ordaindu beharrekoa. Gaur egun, berriz, aurrekontua 5 milioi eurokoa da. Plan Hidrologiko berriak diru horretatik milioi bat 2016-2021eko epean inbertitzea aurreikusten du, eta gainerako lauak, hau da, lan gehien gehienak, 2022-2027koan.

Beraz, Eusko Jaurlaritzari 2007an hartutako konpromisoa lehenago betetzera ezerk bultzatzen ez badiu, Ziako erreka ur zikinak Oriara zuzen-zuzenean isurtzen jarraituko du beste hamar urtez, behintzat. Eta ez dira, ez, mendian sakabanatutako lauzpabost baserrietako ur zikinak, Ziako erreka Geltoki, Buruntza, Bazkardo, Kaletxiki, Gudarien Etorbidea eta Ama Kandida inguruko auzo zein industrialdeetako isuriak biltzen baititu. Adunako araztegia 2013an martxan hasi zenez geroztik, Errekabeltzekoa ez da Andoainen konpondu gabe geratu den saneamenduarazo bakarra, baina bai larriena.

Egia da Oriako saneamendua aurrera doala, baina hori bezain egia da atzerapena izugarri handia dela. Adibide garbi bat: Lasarte-Oriako eta Usurbilgo interzeptorea, aipatutako bi herri horien saneamendua ahalbidetzen duena, martxan hasi berri da; bada, Europako Saneamendu Zuzenta-

rauren arabera, Lasarte-Oriak eta Usurbilek ur zikinak Oriara botatzeari beranduenez 2000. urtean utzi behar zioten.

Asko eta asko dira oraindik Oriara zuzen-zuzenean doazen ur zikinak. Plan Hidrologiko berriak agerian uzten du asko direla oraindik egiteko dauden saneamendu-proiektuak. Proiektuok, oro har, atzerapen handia pilatu dute, eta okerrena da, zenbait kasutan, behintzat, ez dela aurrikusten epe laburrean edo ertainean ere helduko zaizkion. Are gehiago, Planak berak 2027 baino lehen egingo ez diren hainbat proiektu ere zerrendatzen ditu.

Plan Hidrologiko berriaren errepikatzen den ideia bat hauxe da: egiteko dauden proiektuak egiten joango dira aurrekontu publikoek ahalbidetzen duten neurrian. Baina erakundeek, bereziki Eusko Jaurlaritzak, saneamendu-proiektuetara behar beste diru bideratzen ez badute, beste lehenta-

"Ziako erreka Geltoki, Buruntza, Bazkardo, Kaletxiki, Gudarien etorbidea eta Ama Kandida etorbideko auzo zein industrialdeetako isuriak biltzen ditu"

sunak dituztelako izango da, beharbada proiektu "estrategikoagoak". Saneamendu-proiektuak oinarri-oinarritzekoak bai, baina "estrategikoak" ez omen dira, eta ulertzen dugu politikoentzat ia edo zer saneamendua baino glamurosoagoa izatea. Alabaina, guk, Bertolt Brechten urak gure errotara ekarri, badakigu proiektu txarrak, txarragoak eta zitalak dauden bezala, proiektu onak, hobeak eta bikainak ere badaudela. Eta gero daude ezinbestekoak: horietakoak dira saneamenduetarekin zerikusirik dutenak".

MIKEL GOENAGA APAIZA GOGOAN IZANGO DUTE APIRILAREN 24AN, SORABILLAN

Hurkoa bere burua bezain beste maite zuen pertsona

Mikel Goenaga Telletxea apaizaren heriotzak samin sakona eragin du Andoainen. Ekintzaile porrokatua izan zen bertan apaiz gisa egin zituen urteetan (1984-1996), eta ahaztu ezineko oroitzapena utzi

zuen belaunaldi ezberdinetako andoaindarren artean. Adiskide horietako batzuk datorren apirilaren 24rako Sorabillan omenaldi ekitaldia antolatu dutela iragarri dute.

Andoainen arrasto sakona utzitakoa da **Mikel Goenaga Telletxea**. Martxoaren 18an Andoaindik Astigarragara herrikide ugari joan zen azken agurra ematera. Izan ere, bere bizitzan zehar gizarte lan bikaina burutu zuen herrian, bertan egin zuen hamabi urteko egonaldian. Zehazki, 1984 eta 1996 urteen artekoa. Denbora tarte horretan herritar askoren adiskidetasuna eta aitormena lortu zuen. Bere nortasuna gogoratzeko garaian, miresmeneko hitzak baino ez ziren entzuten Astigarragako hileta elizkuna hurbildu ziren andoaindarren ahotan: “Apaizaren estereotipoa apurtzen zuen pertsona”, “Elizaren doktrina soziala azken muturretaraino eramaten zekien apaiza, koherentea erabat”, “pertsona baikorra eta ekintzaile etengabea bezain tematia”, “gizarteko pertsonik behartsuenen (toxikomanoak, kalean bizi direnak, preso ohiak, emigranteak...) ondoan egon dena beti”, “Andoainen gazte belaunaldi ugari zirikatzen eta mugitzen jakin zuena”.

EKINTZAILE NEKAEZINA

Bi helburu eduki zituen gogoan beti Goenagak: gizarte osoaren ongizatea eta beharrik handiena zuten pertsonentzat bizitza duina. Horretarako, makina bat ekimenen sortzaile edo bultzatzaile izan zen, eta horietan herriko jende anitz inplikatzeko jakin zuen, Andoainen igaro zituen hamabi urteetan. Arlo ugari jorratu zuen (drogamenpekotasuna, kartzeletako pastoraltza, aisialdia, udalekuak, sendotza...) eta denetan erabateko inplikazioa eta konpromisoa erakutsiz.

1984an heldu zen Andoanera, bertan emanez lehen meza. Oso garai gogor eta nahasia izan zela hura aitortu zion Aurri, 2009ko azaroaren 27an eskaini zion elkarrizketan. “Goiko parroko etxetik ikusten ziren yonkiak arkupetako koskan, egunero. Arazoa begibistan geneukan. Ni Andoainen izan nintzen bitartean, 60tik gora lagun hiletak egin ziren Sorabilla, Santa Krutz edo San Martinen. Gaindosiak, HIESa... Soldaduskatik libratzeagatik hepatitis a pasa zuen lagunaren odola txertatzearen eraginez hil zirenak ere ezagutu genituen. Eta 60ko zerranda horretan ez dira sartzen beste makina bat hildako, herritik kanpo hildakoak, alkoholak hildakoak...”.

Drogomenpekotasunaren fenomenoaz aztertzeke herrian sortu zen Askagin-



Mikel Goenaga apaiza 2009an Aiurri eskainitako elkarrizketarako ateratako argazkia.

tzarekin borroka latza burutu zuen urte haietan. “Askagintzatik Udalarri plantzinta eskatzen genion, ez bakarrik prebentzio lanean, baita tratamendu eta gizarteratzearen arloan ere. Problematika latza zela eta neurriak hartu behar zirela adierazten genuen, baina gehiegikeriatan ari ginela erantzuten ziguten. Ez zegoen asmo txarrik erantzunean, baina nola errealitate hori ez zen datu ofizialetan islatzen, ez zen existitzen! Esku hartzea gainera, deserosoa gerta zitekeen botoa Jainkoaren pare jarri ohi duten alderdientzat”.

Sorabillako erretoretxean burutu zuen bere eginkizunik ikusgarriena seguruenik. Harrera etxe bihurtu zuen hura, bertan kabida emanez laguntza behar zuten era guztietako pertsonen: Gizakia Helburua egiten ari ziren heroinazale ohiak, osasun mentaletik jotakoak, alkoholak eragindakoak... Errotik moztu zioten egitasmo guzti hura halako batean, baina urteek ematen duten perspektibarekin, baikorki baloratu zuen Sorabillan egindako lana:

“Nire apostu eta konbentzimendu batzuk errealitate bihurtzeko aukera eman zidan. Egia da bidean zoazen heinean gauzak ikasten zoazela, eta alde horretatik orain zenbait ahalegin ez nitzuke modu berean bideratuko. Inguruko jendearekin ez nuke berdin jokatu; izan ere, jendea inplikatu nuen egitasmo erakargarri batean, eta gero zer da eta Andoaindik atera nindutenean, hor geratu zen ‘honek liatu gaitu eta ge-

gana hurbildu zen jauntxo txiki edo ‘notableen’ kuadrila: nire janzkera, ibilerak, konpainiak..., ezin zitezkeen apaiz batenak izan”.

Elizaren goi estamentuetan ezinegona sortzen zuen apaiza izan zen beti, eta jakina da ez zela ondo moldatzen azken urtetan Donostiako gotzain den Jose Inazio Munillarekin. Modu ezkorrean baloratu zuen Munilla Gipuzkoako gotzain izendatu izana orduan: “Munilla ondo ezagutzen dugu Zumarragako apaiza izan zen garaitik; ez zuen batere parte hartzen pastoraltzako dinamikan. Gero Palentziako gotzain izendatu zutenean ere, oso urrun jokatu zuen hango eliza osatzen zuten apaiz eta sinisdunen komunitatearekin. Bera hor jartzeak bi helburu ditu, bata politikoa eta bestea doktrinalagoa. Gipuzkoa ere ‘espainiar’ egin nahi da, eta gainera, elizaren ideologiarik kontserbadorena ezarri nahi da gaindituta zeuden praktikak berritzeko: mezak latinez eman, aitormenak bakarka egin...”.

Goenagak bat egin zuen Munillaren izendapena Gipuzkoa ‘birkonkistatzeke’ gogoz Antonio Rouco Varela kardenalak abian jarri zuen estrategiaren baitan sartzen zela zioten iritziekin. Berari gertatutako pasadizo esanguratsu bat kontatu zuen iritzi hori indartzeko: “Valde-Espinako markesaren lehengusua Fernando Altolagirrek, Astigarragan bertan eman zuen bere lehen meza. Donostiako aristokraziako kide eta autoritate zibil ugari bildu zen. Altolagirrek bere sermoian lehenbizi, eta mezara joandako askok gero, gauza berbera errepikatzen ziguten: ni bezalakoak ‘gainditu beharreko akats historikoak’ ginela Elizaren barruan”.

ANDOINGO UDALAREN ESKER ONA

Udalak ohar bidez atsegabetasuna adieraztearekin batera, Goenagak egindako lana txalotu zuen. Bereziki, Askagintza taldearekin eta Sorabillako erretoretxea harrera etxean drogamenpekotasuna eta bazterkeria egoeran aurkitzen ziren pertsonen alde egindako lan handiagatik.

AKTORE LANETAN

Bitxikeria modura, aipagarria izan zen zineman egin zuen agerpena. Aktore lanetan aritu zen 2009an, Joxe Mari Orbe zuzendariaren aginduetara “Aita” filman. Estreinaldia Donostiako Zinemaldian egin zuten, 2010eko edizioan.

OMENALDI EKITALDIA

APIRILAREN 24AN SORABILLAN

Andoainen egin zuen lana eskertzeko eta bere oroitzapena bizirik mantentzeko asmoz, bere zenbait adiskide ekitaldi publikoa antolatzen ari dira. Sorabillan jarri dute hitzordua, datorren apirilaren 24an. Goizeko 11:30ean meza izango da, eta ondoren plazan ekitaldi publikoa.

Ekitaldia edonorentzat zabalik izango da, eta antolatzaileek helbide elektronikoa jarri dute eskura: m.estanga@hotmail.com. Ekitaldian parte hartu nahi luketen pertsona edo taldeek email horren bitartez jarri beharko dute harremanetan. Argazkiak edota bestelako oroitzapenak ere email horretara bidaltzeko eskaera egin dute.

ro joan egin da’, esanez bezala. Bestalde, orduko erromantizismoa aberasgarria izan zen arren, indar hori dena jaten duen sistema asistentzialista batean bizi gara, eta hori kontuan izanda jokatuko behar dela iruditzen zait”.

APAIZ EZATSEGINA

Andoaindik aldendu beharra ez zen bere gustuko gauza izan, eta ahoan bizarrik gabe hitz egin zuen garai hartaz: “Pentsatzen dut izango zirela tristetu zirenak; baina aldi berean, baita poztuko zirenak ere. Azken horien artean, adibidez, udaletxeko jendea edo herri-ratu bezain pronto kargua hartuz nire-

MIKEL GOENAGA APAIZA GOGOAN IZANGO DUTE APIRILAREN 24AN, SORABILLAN

Arrasto luzea utzi du

“Gogoan dut haurrei askatasun handia ematen ziela nortasun edo irizpide propioa eduki zezaten”

“Egunerokotasunean sentimendu kristaua daukan pertsona baten jokaera erakusten zigun”

“Gaztaroan gerora baliogarri izan zaizkidan ikasgai asko hartu nituen berarengandik”

“Egundoko ahaleginak egin zituen arazoak zituzten pertsonen alde. Haren ondoan asko ikasi genuen”



Iñigo Loiarte

“Badira ni baino askoz ere sakonago ezagutu zuten pertsonak Andoainen; nik esan dezakedana da bera herrira etorri berritan ezagutu nuela eta tratu dexente eduki genuela. 1986an edo izango zen, eta ikastolan erlijioaren ikasgai ematera etorri zitzaigun ikasleei.

Egia esan, gaiak ez ninduen gehiegi motibatzen eta ez nion arreta handiegirik jartzen, baina irakasle bezala definitu beharko banu, bi aurpegikoa izan zela esango nuke: zorrotza zen zegokion ikasgai emateko orduan, baina denborarekin oihartzaren zinen jendaurrean serioaren planta jarri nahi izaten zuela, ze tarteka elkarren artean barreak eta txantxak egiteko testuinguru aproposak sortzen jakin bazekien.

Gerorago, Zudaireko udalekuean egin nuen topo berriro berarekin. Ni begiraleetako bat nintzen eta bera txanda bateko arduraduna. Aisialdiko testuinguru hartan umeak ere berehala oihartzaren ziren markaz kanpoko apaiza zela, betidanik elizarekin zerikusi gutxi zuena...

Elizaren doktrinarik herrikoiena eta pertsonen arazoetara itsatsitakoa aplikatzen saiatzen zen apaiza zen, edozertan laguntzeko beti prest zegoena, eta gainera, umorerako eta txantxarako lehenbizikoa zena.

Gogoan dut haurrei askatasun handia ematen ziela nortasun edo irizpide propioa eduki zezaten; esate baterako, libre uzten zien mezetara joan ez joateko aukera, nahiz eta elizaren babeseko udalekua zela jakin”.



Bea Amundarain

“Gaztetan, astebururo irteerak egiten genituen berarekin, eta era horretan eduki nuen aukera Mikel pertsona gisa ezagutzekoa. Pertsona zoragarria zen, eta bere egunerokotasunean zein izan behar lukeen sentimendu kristaua daukan pertsona baten jokaera erakusten zigun: hurkoa maitatu eta zerbitzatzeko espiritua, eta behar gehien dutenen ondoan egotea. Elizaren instituzioak eragiten dituen kontu burokratikoaren gainetik jardutearen erudia zen bera.

Azken aldian harremana mantentzen nuen berarekin, Andoingo Caritasen bitartez. Astigarragako errumaniarren giza komunitarekin zebilen lanean aspalditik, eta tarteka laguntzen genion, arropak eta bestelako materiala eskura jarriaz. Buru-belarri ikusten zen errumaniarrek, haien bizi baldintzak hobetu nahian. Egitasmo ugari zerabilen buruan, betiere errumaniarrek lortu zezaten gizarteratzea eta lanpostu duinak eskura zitzaten euren lan kualifikazioa kontuan hartuta. Ezinegona sentitzen zuen ikusten zuenean gure gizartearen nahiko zabaldua daudela aurreiritziak eta haien kontrako borroka zeraman. Argi zeukan emigranteak ez direla kapritxoak etortzen guregana, egoera injustuek bultzatuta baizik; hemengoan aldetik ez dutela tratu txarrik, irainik edo kritikarik merezi. Esate baterako, haiek guk bezainbat eskubide daukate kafe bat hartzeko gogoia edukiz gero, eta gu ez garela inor haiei ezer kritikatzeko, gutxiago egundoko kontsumo mailarekin bizi garenok”.



Atxur Azurmendi

“Apaiz ordenatzeko atarian zela etorri zen Andoainera; San Martingo elizako erretoretxean jarri zen bizitzen. Ez dakit nola, baina berarekin harremanetan hasi ginen eta orduak pasatzen genituen berriketan. Hasieratik utzi gintuen jokoan kanpo, apaiza baten kontzeptu tradizioaletik irtetzen baitzen. Gazte jende askoren antzera, berak animatuta hasi nintzen ni ere herriko ekimenetan parte hartzen: begirale gisa Zudaireko udalekuean, sendotza eta aisialdiko taldeetan, Askagintzan...”

Konformagaitza, etsigaitza zen. Hitz egin eta predikatu bai, baina batez ere ekintza gogoko zuen. Eta jakina, nortasun horrek talka egiten zuen elizako jerarkiako zenbaitekin; pentsatzen dut horregatik bidali zutela Oiartzunera.

Konta dezaket berarekin bizitako pasadizo bat: Gazte-gazteak ginen artean, eta sendotza taldeko bilera baten ostean, berak Pasusko jaietara abiatzea proposatu zigun. Normalean kontrakoa izan ohi zen, alegia gazteak parrandara joan nahi izatea eta hezitzaileek atzentzea; tipo harrigarria zen horretan ere. Gogoan dut bidean guardia zibilak atzetik segika genituela. Pentsatzen dut Mikelentzat ez zela guardia atzean zituen lehenengo aldia izango. Kontua da Adu-nako bide zaharrean ginela, Bentako pare horretan gerarazi egin gintuztela. Autoa dena erregistratu, gauza guztiak atara..., denbora puska batean eduki gintuzten horrela, euria goran euria behean blai egin-da”.



Patxi Nieto

“Mikel ez zen elizaren arauak hausten zituen apaiza, baina argi zeukan zein zen bere misioa eta zein zen hartu behar zuen bidea; bazekien kalea zapaltzen, baztertuenekin egoten... Niri, *feliziano* bat nintze-la esaten zidan, baina egiazki bera zen halakoa: sekula ezetzik esaten ez zekiena, beti baikorki eta gauzak egiteko irrikitan begiratzen ziona bizitzari, etxeko ateak edonori irekitzen zizkiona nondik zetorren galdetu gabe. Orain urte batzuk arpegi gaixotasun bat jasan zuenean ere, ‘zer moduz, Mikel?’ galdetuz gero, ‘hau ez da ezer, aurrera egin behar da’ erantzuten zizun agudo.

Sendotzako taldeetan egin genuen bat, La Sallen talde mistoak sortu zirenean. Harrezkero, berarekin momentu eta bizipen asko partekatzeo aukera eduki nuen, Munillako udalekuean lehenbizi eta Sorabillan Gizakia Helburu proiektuaren inguruan gerorago.

Udalekuean-eta konfiantza hartu genuen, eta halako batean drogarekiko menpekotasuna uzten ari ziren gazteekin ibiltzea proposatu zidan. Sorabillako erretoretxean, Gizakia Helburuko sozializazio prozesuan murgilduta zebilen pertsonaren bat edukitzen zuen bere ardurapean beti, eta laguntzaileak behar izaten zituen berak ezin zuenean, hots, meza eman behar zuenean eta antzeko aldarreetan.

Azken batean, nerabezaroen eta gaztaroan ezagutu nuen Mikel, eta gerora baliogarri izan zaizkidan ikasgai asko hartu nituen berarengandik”.

Patxi Perez

“Izugarri ikasi nuen harengandik. Gaur, bera agurtzeko lagun ugari bildu gara Astigarragako elizan, baina seguru nago hurbildu ezin izan duten beste hainbati malkoren bat edo beste irten zaiela egunean zehar.

Egundoko ahaleginak egin zituen arazoak zituzten pertsonen alde. Ez nuke exajeratuko esango banu merezimenduak soberan egin zituela bere izena herriko kale edo parke bati jartzeko.

Sorabillako erretoretxean Cristina Trutxuelo, Rita Diez eta hirurok ginen hezitzaileak Mikelekin batera, Caritasen kontratatuta. Ordu pila egin genituen elkarrekin, kezka eta egitasmoak partekatuz beti: mutil honekin zer egin, harekin nola jokatu...

Sorabillan lau pertsona egoten ziren Gizakia Helburu programa osatzen; horiez gain laguntza eta bergizarteratzeko beharra zeukaten beste zenbait pertsona ere topa zitezkeen bertan, Mikelen eskuzabalatasunari esker: Preso ohiak, kalean bizi zirenak...

Boluntarioak ere etengabe ibiltzen ziren, kolaborazio lanak burutzen. Azken batean, bizitasuna zen nagusi Sorabillako etxean. Oso giro politoan, bizikidetzan aberastasuna usaintzen zen han.

Zoritxarrez, baina, Mikelek Sorabillan zutitu zuen proiektua ez zen Caritasen Gipuzkoan zeukan zuzendaritzaren gogoko, eta azkenean handik bidaltzea lortu zuten; Oiartzunera hain zuzen ere. Oso itsusia izan zen hura, gizarte humanoago baten aldeko egitasmo bat bete-betean hautsi baitzuten”.

“Euskaldunon Egunkaria” hizpide duen dokumentala



Itxiera salatzeako manifestazio jendetsuak izan ziren, 2003an.

Datorren asteartean, Baste-
roko dokumentalen zikloan,
Euskaldunon Egunkariaren
sorrera ardatz duen doku-
mentala eskainiko dute. Egi-
lea Eriz Zapiain izan zen eta
hastapen haietan parte har-
tze zuzena izan zuten berro-
gei lagun elkarrizketatu zi-
tuen. Atzera begirakoa da,
iragana ahaztu ez dadin. Do-
kumentalaren aurkezpenan
Zapiainek berak aitortu be-
zala: “Asmoa da 20 urteko
gazte batek ikustea nola sor-
tu zuten egunkari bat egune-
ro erabiltzen dugun teknolo-
giarik gabe”.

1990eko abenduaren 6a
euskaltzale askorentzat mu-

garria izan zen, egun horre-
roko abiatu baitzen euskaraz-
ko egunkaria. Lehen urrats
haien inguruan pantailaren
aurrean agertuko dira, beste-
ak beste, Xabier Lekuona,
Lorea Agirre, Hasier Etxebe-
rria, Joan Mari Torrealda...

2003ko otsailaren 20an
itxi zuten Andoainen egoitza
nagusi zuen Euskaldunon
Egunkaria, Espainiako Auzi-
tegi Nazionalaren aginduz.

Hamahiru urte haiek bil-
tzen dira “Gaur irekiko ditu
ateak” dokumentalean.

“Gaur irekiko ditu atea”

19:00. Bastero. 3 euro.
Apirilak 12, asteartea.

Preso ohien bilkura



Larunbat honetan Andoain-
go preso ohien bilkura deitu
dute. Irunberrin izango da,
goizeko 10:30etan hasita.
Bertan taldeko argazkia ate-
ra eta datorren apirilaren
17ko manifestaziorako deia-
rekin bat egin nahi dute. Na-
zio mailako manifestazioa
Bilbon izango da “Amnistia-
ren norabidean preso eta
iheslariak etxera” lemapean.

**MANIFESTAZIOA BILBON
DATORREN APIRILAREN 17AN**
Htzordurako Andoaindik
autobusa antolatu dute eta
izena emateko aukera izango
da Xaxin eta Irunberrin.

Bilboko manifestazioa
eguerdiko 12:00etan abiatu-
ko da La Casillatik. Ando-
aindarrak goizeko 10:00etan
autobusean irtengo dira Ma-
kaldegitik.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

ELAko grebalarien artean hainbat andoaindar daude

Errepideetako beharginak greba mugagabeen greba mugagabeen



Martxoaren 1az geroztik Foru Aldundiko egoitza nagusiaren aurrean protesta egiten ari dira. Irudian, Manolo Tena andoaindarra.

Greba mugagabeen
murgilduta daude
Gipuzkoako errepideen
mantenimenduz ardu-
ratzen diren langileak. Andoain-
dar ugari dago martxoaren 1ean
grebari ekin zioten langileen
arte. ELA sindikatuko **Mano-
lo Tena** langileen ordezkariak
grebara jotzeko arrazoiak azal-
du dizkio Aiurriri.

**Zein izan dira zuen arrazoiak gre-
bari ekiteko?**

Manolo Tena: Hiru enpresa el-
karri lan baldintzak hobetzeko
eta lan erreformaren aurkako
klausulak onar ditzan eskatu
diegu. Enprekin lan hitzar-
mena negoziatzen hasi ginene-
an, oso baldintza lotsagarriak
eskaini zizkiguten. Aditzera
eman ziguten Aldundiak ez
diela irabazirik uzten, eta oso-
oso baldintza kaskarreko esle-
ipenak hartu behar izaten di-
tuztela.

Egia esan, lau urtero berri-
tzen da zerbitzuaren lizitazio-
ko prezioa eta aldi bakoitzeko
aurreko diru partida mantien-
tzen ari da. Horrek esan nahi
du lau urtero okertzen doazela
zerbitzuari dagozkion baldin-
tzak, gizarteari zein langileei
begirakoak.

Azken urteetan ohartu gara
errepideetako zerbitzuen arlo-
an Diputazioak jartzen dituen
esleipen baldintzak miseriaz-
koak izaten direla.

Gipuzkoako Foru Aldundiko
teknikari nagusi Iñigo Zufiria
berak ere aitortu digu, idatziz,
perbertsoa dela esleipen politi-
ka.

*Andoaindar ugari dago
martxoaren 1ean grebari
ekin zioten langileen arte-
an*

**Zergatik egiten duzue protesta
Aldundiaren aurrean?**

M.T.: Azken batean bera delako
adjudikatzailea. Enpresak ez
badaukate marjenik langileen
baldintzak hobetzeko, Aldun-
diari dagokio esleipeneko bal-
dintzak hobetzea.

Gainera, esleipenaren baldin-
tza ugari ez dira betetzen, eta
Diputazioari dagokio horiek be-
tearaztea. Egoera horiek salatu
egin ditugu lan delegaritzan.
Esate baterako, elurra kentzeko
makintan bi langilek joan be-
harko lukete, baina bakarra ibili
ohi da; hamabi orduko lan-jar-
dunak egitea dagozkie, baina
hamahiru edo gehiago egiten di-
tuzte; pliegoetan zehazten diren
lanpostuen kategoriak ez dira
inondik inora errespetatzen...
Faktore asko dira pilatzen dire-
nak, betetzen ez direnak, eta az-
kenean zerbitzu publikoaren
kaltetan doazenak. Begibistakoa
da Gipuzkoako errepideen
mantenimenduaren zerbitzua
lau urtetik lau urtera kalitatez
kaskartzen doala.

**Zein dira hiru enpresa-taldeak?
zein euren ardura?**

M.T.: Autopistez Bidelan ardu-
ratzen da. Autopistak ez diren
gainerako errepideez hiru en-
presa arduratzen dira: UTE Mi-
ramon 2014, UTE Goierrialdea
eta UTE Urola Deba.

Arlo elektrikoa darama lehe-
nak; N1eko Andoan-Zegama
tarte eta A15eko Andoain-
Leitza tarte dira bigarrenaren
lan eremua; eta hirugarrena,
UTE Urola Deba, bailara har-
tako eskualde mailako errep-
ideez arduratzen da.

**Zenbat langile dituzte denera, eta
zenbatek egin dute bat grebare-
kin?**

M.T.: 90 bat langile izango dira
denera, hirurak batuta. Bulega-
riak eta UTE Goierrialdeko lan-
taldeko bederatziki kenduta,
gainerako 70 langileak ELA
sindikatuaren planteamendu-
arekin bat egiten ari dira.

**40 egun betetzera doa greba.
Langile batek nola egiten dio
aurre egoerari, ekonomikoki?**

M.T.: Gure sindikatuen erresis-
tentzia kaxa dauka, zorionez,
horrelako egoerei erantzun ahal
izateko. Egunotan, sindikatuko
zuzendaritzak gurea egoera be-
reziko grebatzat jo du, eta horri
esker, langileek ohiko soldata-
ren ehuneko zati handi bat ja-
soko dute.

Zein da langile baten soldata?

M.T.: Errepideetako langileen
soldatek ez dute zerikusirik,
esaterako, Diputazioko funtzio-
nariak daukatenarekin. Gaur
egun, behargin batek 1.300 eu-
ro garbi jaso ditzake. Urrutira
gabe, AP8 eta AP1 errepideak
mantentzeaz arduratzen diren
Bidelaneko langileek 1.900 eu-
ro jasotzen dute. Ez dugu uler-
tzen zergatik sortzen diren ho-
rrelako diferentziak.

Goiburun, Basteron eta Berrozpen izango dira lehen bilerak

Auzoz auzoko parte hartze prozesu berria hastear da



Apirileko hitzorduetan egoera ekonomikoari buruzko aldagaiak azaltzeaz gain, hainbat egitasmoren inguruko xehetasunak eskainiko dituzte. Berrozpeko bileran, esaterako, Ama Kandida etorbidearen berrikuntza hizpide izango dute.

Andoingo Udalak auzoz auzoko bilerak deituko ditu hilabete honetan, parte hartzea sustatu asmoz. Datorren asteartean, zehazki, Goiburun abiatuko da bilera sorta hori eta apirilaren 21ean amaituko da Sorabillan. Hamar egunetan zazpi bilera iragarri dituzte.

Laster urtea beteko da Udal hauteskundeak deitu zituztenetik, eta denbora tarte horretan Udal jardueran berrikuntzak izan dira. 2016ari dagokion Udal aurrekontua onartuta, hainbat prozedura berri martxan jarri dituzte. Horiei esker argiteria sistema berrituko da, uz azpiegitura sarea faseka eraldatu eta hainbat gastu eta inbertsioei ekingo diete.

Egoera ekonomikoa ere, onbideratzen ari da azken urteotan hartutako neurri zuzentzaileei esker. Bilera sorta horretan zorpetzeari eta funtzionamendu gastuei buruzko hainbat aldagai azalduko dituzte.

Auzoz auzoko bilera sorta apirilaren 11n abiatuko da Goiburun

BILERETAN PARTE HARTZEKO DEIA AUZOTARREI

Auzoz auzoko bilerak izatean, tokian tokiko informazio zehatza emateko asmoa agertu dute. Banatu dituzten bandoetan ikusten denez, Berrozpen deitu duten bileran Ama Kandida etorbidearen berrikuntzaren xehetasunak eskainiko dituzte. Goiburuko bileran, esaterako, herri bideen konponketa aztergaietako izango da. Eta, Basteron egingo duten bileran, berri, Makaldegian egingo dituzten berrikuntzak.

Bilera horietan egin ohi dutenez, bertaratzen direnei galderak egiteko eta kezak agertzeko aukera emango diete. Urrian, esaterako, partaideek ur hoditeriari edota zuhaitzei buruzko galdera asko egin zituzten.

BILERA SORTA

Auzoz auzo

Apirilak 11-21

■ Goiburun

Apirilak 11, astelehena
18:30. Goiburun, auzo elkarte.

■ Zumea, erdigunea, Olagain

Apirilak 13, asteazkena
18:30. Bastero, ekitaldi aretoa.

■ Bazkardo, Kaletxiki, A. Calonge

Apirilak 14, osteguna
18:30. Berrozpe, ikastetxea.

■ Buruntza, Leizotz

Apirilak 18, astelehena
18:30. Udaletxea, pleno aretoa.

■ Karrika, Etxeberrieta

Apirilak 19, asteartea
18:30. Karrika, Karrika elkarte.

■ Goiko eremua, La Salle, Plazaola

Apirilak 20, asteazkena
18:30. Urigain, areto nagusia.

■ Sorabilla, Bordaberri

Apirilak 21, osteguna
18:30. Sorabilla, auzo elkarte.

Mikel GOENAGA TELLETXEA apaiza



Martxoaren 16an hil zen, 57 urte zituela.

Egun bat borrokatzen duten gizonak daude, ta onak dira.

Beste batzuk, urtebete borrokatzen dute, ta hobeak dira.

Urte askotan borrokatzen dutenak daude, ta oso onak dira.

Baina bitzta osoan borrokatzen dutenak badaude... horiek dira beharrezkoak.

Oharra: Apirilaren 24an 11:30tatik aurrera Sorabillan ospatuko den omenaldi ekitaldira gonbidatzen zaituztegu.

Andoingo lagunak

Haur literatura saioak

Udal liburutegiak **Irakurketa kluba** antolatuko du 4-5 urte arteko haurrentzat, hiru saio ezberdinetan. Ekimenak haurrak eta gurasoak ipuingintzan murgildu nahi ditu, besteak beste honako helburuekin: Haur eta gurasoen artean irakurketa giro bat sortzea, kalitatezko euskal bibliografia ezagutzeko eta li-

buruen komentarioak bul-tzatzea.

Hiru saio

17:30. Liburutegia.
Apirilak 19, asteartea.
Maiatzak 4 eta 17.

Informazio gehiago:

Ondarreta 2, Andoain
liburutegia@andoain.eus

Udalaren eta Salkinen arteko hitzarmen berria



Jon Zulueta eta Luis Angel Orte hitzarmenaren sinadura ekitaldian.

2016 urteari begirako hitzarmena sinatu dute Andoingo Udalak eta Salkin Andoingo merkatarien elkarteak. **Jon Zulueta** Enplegu, Sustapen ekonomiko eta Gazteria-ko zinegotziak eta **Luis Angel Orte** Salkineko presidentek hitzarmena sinatu zuten, martxoaren 17an.

Udalaren eta elkartearen arteko elkarlana indartzea eta herriko komertzioa sustatzea dira helburu nagusiak. Hiru mila euroko laguntza jaso du Salkinek azken urteetan, baina zazpi milarainoko igoera izango du aurtengoan. Zuluetak hilabeteotan egindako hausnarketa nabarmendu zuen, "Andoingo merkataritza sufritzen ari da azken urteotako krisiaren eraginez; baina bestalde, esan behar dugu egoera hori aldatzen saiatzeko guztiok ere hausnarketa dezente egingen ari garela, eta iaz abian jarri genuen Andoain Txarte-

la izan da emaitzarako bat". Txartel hori eskuratzeko kanpaina indartsua egin eta gero, txartelaren erabiltzaileei abantailak eskaini nahi dizkiete. Apirilean hasita, gainera: "Hamar euroko mila bono jarriko dira txartela ateratzea erabakitzen duten herritarren esku. Era horretan, diru kopuru hori ere Andoingo dendetan inbertitu ahal izango da".

Udalak, Salkin elkarteak eta Rural Kutzak jarraituko dute txartelaren sustapen lanetan. Azkenik, Udalak deialdi bikoitza egin zuen; batetik Salkinen sartuta ez dauden Andoingo komertzioei elkarte horretan bazkietu daitezten gonbidapena luzatu zien, "ona delako elkarlanean jardun dezaten".

Andoingo herritarrei egin zien bigarren deialdia, txartela oraindik atera ez dutenei, txartela eskuratzera animatu daitezten.

"Andoaindarra euskaraz" eguna prestatzeko deialdia

Euskara zerbitzuak egiten dituen jarduerak baloratu eta berriak lantzeko eremu bihurtu da Euskararen Aholku Batzordea. Une honetan udala, ikastetxeak, ludoteka, gazte lokala, guraso elkarteak, mintzalagun taldea, aisialdikoak eta norbanako batzuk dabilta bilgune horretan. Aurtengorako "Ando-

aindarra euskaraz" eguna antolatu nahi dute, datorren irailaren 24rako.

Egun osoa hartuko duen ekimena izango da, euskaraz buruturiko ekintzez beteko dena. Dagoeneko hainbat ekarpen jaso dituzte, baina gehiago jasotzeko galdetegi bat sortu dute andoaindarra-euskaraz.eus webgunean.



KIROL ALBISTEAK

Amonarriz txapeldun



Aurreko larunbatean Gipuzkoako selekzioak estatu mailako erlojuaren aurkako txapelketan parte hartu zuen, eta taldeka jubencil mailako txapeldun izan zen Valladoliden jokatu zen proban.

Denboraldi hasiera polita burutzen ari da Ander Amonarriz. Valladoliden sari polita lortu du. Lastima igandeko lasterketan zulatua izan zuela. Nolanahi ere, zorianak!

Gaztetxoak Ormaiztegin



Alebinak:

1. Amaia Astarloa (Oriako-Limousin)
3. Dani Fursenko (Andoaingo)
7. Igoia Pikabea (Andoaingo)
14. Ibai Vela (Andoaingo)
17. Izaro Zuriarrain (Andoaingo)

Infantilak:

1. Gaizka Aranguru (Ampo)
8. Ibai Omeñaka (Andoaingo)
10. Unai Galarza (Andoaingo)
13. Laiene Pikabea (Andoaingo)
16. Maddi Rodríguez (Andoaingo)
17. Iker Atxaga (Andoaingo)
17. Unax Azpiroz (Andoaingo)

Areto futbol txapelketa

A Taldea Allurralden

Centro Extremeño-Txalaka
Larunbata, 9. 14:30.
Dad Kutxa-Aure Maiton
Igandea, 10. 09:15.
Ekhia-Ozu
Igandea, 10. 10:15.

B Taldea Arraten

Ekaitz-Ondarreta
Igandea, 10. 10:00.
Hogar Extremeño-Drink Team
Igandea, 10. 11:00.
Academia-Egur
Igandea, 10. 12:00.

Futbola, asteburuko partidak

ERREGIONAL OHOREZKOA

27. jardunaldia:

Euskalduna 1-3 Getaria

28. jardunaldia. Larunbata, 9:

Tolosa-Euskalduna. 16:30.

PREFERENTE MUTILAK

24. jardunaldia:

Urnieta 3-0 Amara Berri

25. jardunaldia. Larunbata, 9:

Añorga-Urnieta. 16:15.

Ganbara saski taldea

Asteburuko emaitzak:

Ganbara SenM 56-55 Andraitz B
Hernani 49-44 Ganbara JubM

Datorren jardunaldia:

BKL-Ganbara SenM
17:30. Beasain. Igandea, 10.

Iraupen luzeko mendi ibilbidea igande honetan

Euskal Herriko Iraupen Luzeko ibilaldien zirkuituaren baitan, Andoaingo Euskalduna mendigoziale taldeak ibilaldia antolatu du igande honetarako. Zeharkaldiak 42 kilometroko luzera izango du, honako ibilbidearekin: Andoain-As-teasu-Alkiza-Ernozabal-Andazarrate-Zarate-Belkoain-Andoain.

Parte hartzaileak goizeko 07:00tan abiatuko dira Euskaldunako egoitzatik, eta txartela hartzerakoan 5 euro ordaindu beharko dituzte. Martxan irtingo direnek ibilaldian zehar jarritako kontrol postu guztietatik igaro behar dute. Ibilaldian zehar hiru kontrol egongo dira, bertan fruta eta ura eskainiko direlarik.



Belkoaingo gurutzea, mendi zeharkaldiaren azken aurreko pausalekua.

Ibilaldiaren amaiera 14:00ak aldera aurreikusita dago, eta elkartearen bertan parte hartzaileei luntxa eskainiko zaie.

Izen ematea:

- 943592232 (20:00-21:00).
- euskaldunamt@yahoo.es
- www.zirkuitua.com

Eskubaloian hirugarrenez Portugal aldean



Jokalari, prestatzaile eta familiak zenbatuta, denera berrehun herrikide izan ziren Portugal aldean, lau eguneko egonaldian.

San Joao Da Madeira taldeak Portugalen "Andebolmania" nazioarteko eskubaloia txapelketa antolatzen du eta Urnieta KE taldeko kideak hirugarrenez bertan izan dira, esperientzia gogoangarria biziz. Denera iberiar penintsulako eta Frantziako 1700 jokalarik parte hartu zuten, eta urnietarren parte hartzea ez zen txikia izan.

Jokalari, prestatzaile eta familiak zenbatuta, denera berrehun herrikide izan ziren Portugal aldean, lau eguneko egonaldian.

Urnieta sei talde lehiatu ziren, infantil, kadete eta jubencil mailatan. UKEtik oso balorazio ona egin dute: "Balorazio oso positiboa egiten dugu. Helburua gozatzea, ikastea eta elkarbizitzan sakontzea zen eta hirurak ederki bete dira. Eskubaloiko sekzioetik gurasoen taldeari esker ona adierazi nahi diogu, bidaia prestatzen hilabeteak eman baitituzte. Entrenatzaileen lana ere nabarmena izan da. Gure jokalariek nekatuta iritsi ziren, baina dagoeneko datorren urteko edizioa buruan dute".

KIROL EMAITZAK

Kadeteen mailan finalurreko-etara iritsi ziren. Portugalgo Aguasantasen aurka galdu zuten, gerora txapelketako garaila izan zirenak. Infantil mailako neskei gauza bera gertatu zitzaizkien Leganes A taldearekin. Infantil mutilak indartsu hasi ziren, lehenengo hiru norgehiagokak irabaziz. Hogeitik zortzigarren amaitu zuten. Kadete neskek eta Jubencil neskek bederatzigarren tokian sailkatu ziren. Jubencil mutilak, berriaz, hamalagarren izan ziren hogeita bi talderen artean.



KIROL ALBISTEAK

Pausokaren aldeko areto futbol txapelketa



Pausoka elkarte Urnietan ekimenak antolatzen hasi zen, gaixotasun arraroak zituzten haurren alde. Dagoeneko Gipuzkoa osora zabaltzen ari dira.

Andoainen, esaterako, Aste Santuari amaiera emateko elkartasunezko areto futbol txapelketa antolatu zuten. Larunbat arratsaldean hasi eta igande eguerdian amaitu zen.



After Hours taldea, txapelketa.



Taffy Crew taldea, txapelketa-ordua.



Josu Dominguez, atezain onena.



Ekain Gorrotxategi, jokalaririk onena.

Aurreko larunbat eta igandean zortzi talderen arteko areto futbol txapelketa jokatu zen Arrate pilotalekuan, Pausoka elkartearen alde. Giro ederrean igaro zen, bereziki finala. Harmailatan jende asko bilduta zegoen eta fina-

la adi-adi jarraitu zuten.

Txapelketa Andoaingo jokalaririk gazteen artean erabaki zen. After Hoursekoen kalitatea erabakiorra izan zen.

Hauexek izan ziren finalean aritu ziren jokalaririk:

After Hours: Asier Ceballos, Alvaro Toledo, Ekain Gorrotxategi, Josu Dominguez, Joanes Iturrarte, Aritz Chouza, Imanol Gorro.

Taffy Crew: Pablo Placencia, Aritz Rodriguez, Beñat Arizaga, Oier Garcia, Alvaro Jandula,

Eñaut Velado, Jokin Letamendi.

Aipatzekoa da txapelketan emakumezko baten parte hartu zuela, eta hori dela eta sari bat jaso zuen. Baita, jokalaririk onenak eta atezain onenak ere.

Sailkapena:

1. After Hours.
2. Taffy crew.
3. Pausoka.
4. Porruk.

B mailakoena:

1. Lanbroa Sub20.
2. Toronteam.
3. Bar Maiton.
4. Barrigada.

Aiurri.eus:

Webgunean ikusgai daude bideoa eta taldeko argazkiak.

ZANPATUZ MENDI ELKARTEAREN IRTEERA



Aurreko igandean mendi zeharkaldia antolatu zuen Zanpatuz mendi elkarteak, Tolosa eta Urnieta herriak elkar lotuz. Iru-dian, mendizaleak Goiburu auzoko Xoxokan.



Argazkia: Zanpatuz



Hogeita lau kilometroko zeharkaldian Tolosatik Uzturre mendira igo ziren, eta handik Bela-bieta, Goiburu, Otieta eta Xoxoka zeharkatu zituzten.

Argazkia: Jonathan Lopez

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.eus. **Webgunea:** www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trubuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.eus
Publizitatea: Fernanda Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04. **ISSN:** 1698-4870. **Tirada:** 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus. Tel.: 943 300 732

Banatzailak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan). **Inprimategia:** Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

APIRILAREN 7TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

- Andoain, Bastero**
- "Mustang". Igandea, 10. 19:30. Astelehena, 11. 19:30, 22:00.
 - "Gaur irekiko ditu ateak", Euskaldunon Egunkariari buruzko dokumentala. Asteartea, 12. 19:00.

- Urnietan, Sarobe**
- Zinema haurrentzat: "Asterix, la residencia de los dioses". 16:00, 18:30. Apirilak 10, igandea.

Farmaziak

- Eskualdea**
- Andoain: Gorospe. Urnietan: Aldabe Perkaiztegi, 8. Antziola, Hernani.
 - Gauzez: Urrutia Etxeberri, 1. Florida, Hernani. Apirilak 9 eta 10.

Odol-emaileak

- Andoain**
- 18:30-20:30 Anbulatorioa Apirilak 12, asteartea.

Musika

- Andoain**
- Iker Lauroba. 22:30 Irunberri. Apirilak 15, ostirala.
 - Joseba Irazoki & lagunak, Herena, Rukula. 22:30 Gaztetxea. Apirilak 16, larunbata.
 - Los chicos del maíz, ZZIO. 22:30 Gaztetxea. Sarrerak Irunberrin salgai. Apirilak 23, larunbata.
 - Malkogarriyak. Santakrutzen atariko emanaldia. Antton Arruti, Ion Beloki eta Iñigo Muñoz. 20:30 Irunberri. Apirilak 28, osteguna.

Jaiak

- Andoain**
- Santakrutzak 2016. Apirilak 29-maiatzak 3.
 - Sanjuanak 2016. Proposamenak aurkezteko epea zabalik, apirilaren 29ra bitarte. Proposamenak aurkezteko inprimakia Basteron edo andoain.eus webgunean eskuragarri. Epea: Apirilak 29.

Dantza

- Andoain**
- "Andoain dantzan" zikloa: **Aracaladanza: "Vuelos"** Ikuskizun onenari edota koreografia onenari sariak jaso dituzte. Haur zein helduak txunditzen dituen ikuskizuna. Unibertsala den ametsa dute: hegan egitea. 18:00 Bastero, auditorioa. Apirilak 9, larunbata.
 - Haatik: "Itsas-lapurrak" Dantzaren bidez gure itsasertzetako bizitza irudikatu nahi da, kultura ezberdinen arteko elkarbizitza eta sinakeriak azalduz. 18:30 Espigoia. Apirilak 10, igandea.

- Urnietan**
- "Maurizia", Aukeran konpainiaren berriena. 20:00 Sarobe. Apirilak 9, larunbata.

Deialdia

- Andoain, Sorabilla**
- Zuhaitzaren eguna. 11:00. Apirilak 9, larunbata.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Amane eta **Axelek** 3 urte egingo dituzte apirilaren 12an. Mila muxu etxekoan partetik.

ADUNA / ANDOAIN


ZORIONAK



Asier eta **Unai**, martxoaren 26an 11 urte bete zenituzten. Jarraitu hain jator. Amona eta aitona.

ANDOAIN

ZORIONAK



Apirilaren 11n **Hodeik** 8 urte beteko ditu. Etxekoak. Ondo pasa!

ANDOAIN

ZORIONAK



Zorionak **Iker!** Apirilaren 11n 3 urte. Primeran ospatuko dugu familia osoak! Muxuak!

ANDOAIN

ZORIONAK



4 urte handijada! **Eneko**, muxu handia. Zu beti alertan, Patrulla Caninaren antzera! Etxekoak.

ANDOAIN


ZORIONAK



Nerea Irazu Jauregik apirilaren 7an 9 urte. Muxu handiak gure etxeko gimnastari.

ANDOAIN


ZORIONAK



Laienek apirilaren 3an 15 urte egin zituen, musikaz blai eta lagunekin dantzan. Etxekoak.

ANDOAIN


ZORIONAK



Oihan 15 udaberri eder, **Olaia**. Segi bizitaz gozatzen gustuko dituzun eta pertsonekin. Abxur, Elena eta Ekhi.

ANDOAIN


ZORIONAK



Libe Izagurre Usaraldekapirilaren 3an 4 urte. Muxu pila gure etxeko neska handiarentzat! Etxekoak.

ANDOAIN


ZORIONAK



Maren Usaralde Urbietak apirilaren 1ean 3 kandela itzalizituen. Egun polita igaroen! Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Urtebete gure artean, jarraitu alai eta pozik orain artean bezala! Muxu asko **Irai**. Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



15 udaberri eder, **Olaia**. Segi bizitaz gozatzen gustuko dituzun eta pertsonekin. Abxur, Elena eta Ekhi.

ANDOAIN

EKITALDI HAUEK ETA GEHIAGO WWW.AIURRI.COM/AGENDA.PHP ATALEAN



Errenta Aitorpena Euskaraz

Batu eta Gehitu Etekina Apirilaren 11tik Ekainaren 25era. Euskara Lehenetsi!

Informazio gehiago: <http://euskara.buruntzaldea.eus>

f Albistea elkarbanatu eta opariak eskuratu!

Andoain / Astigarraga / Hernani / Lasarte-Oria
Urnietan / Usurbil

Udal Euskara Batzordeak

